

Buruaz norber<sub>e</sub> egin

*(Bi emakume lantokian daude, laneko batarekin eta buruko zapiarekin. Halako muntaketa-kate batean daude. Elkarrizketa atsedeen-uneetan eta lanean ari diren bitartean gertatzen da).*

**EMAKUME 1:** Zergatik egingo zuen?

**EMAKUME 2:** Zergatik? Batek daki! Hori ez dinagu sekula jakingo.

**EMAKUME 1:** Koldarra!

**EMAKUME 2:** Ez esan horrelakorik!

**EMAKUME 1:** Errazena egin din, ordea.

**EMAKUME 2:** Ez dun hori nik uste dudana. Ausardia handia behar din gero pertsonak horrelako erabakia hartu eta aurrera eramateko.

**EMAKUME 1:** Ausardia? Hori ihes egitea dun emakumea, arazoari hortzak erakutsi eta aurre egin beharrean galtzipurdia erakustea.

**EMAKUME 2:** Ez zekinat. Orain behintzat bakean izango dun gajoa. Sufritutakoak sufritu eta gero, gu baino hobeto egingo ahal da!

**EMAKUME 1:** Ez dun ba oso zaila. Jakina gu baino hobeto egongo dela. Bejondeiola!

**EMAKUME 2:** Hik egingo al huke?

**EMAKUME 1:** Nik ez. Ez nagon hain izorratua.

**EMAKUME 2:** Ez?

*(Isilunea).*

**EMAKUME 1:** Eta hik?

**EMAKUME 2:** Ni ere koldarra naun.

**EMAKUME 1:** Niregatik dion ala Feligatik?

**EMAKUME 2:** Biongatik. Hi eta biongatik.

**EMAKUME 1:** Arrazoi dun, Feliren aldean koldarrak gaitun gu biok. Zuhurrak ere bagaitun, ordea. Izan ere, gure aldean, Felix pitzadura galanta zinan.

**EMAKUME 2:** Hori ere hala dun. Baina egia galanta dun baita ere gu haren gisan ederki izorratuta gaudela.

**EMAKUME 1:** Hi eta biok baino ez. Feli, orain, libre dun eta.

**EMAKUME 2:** Orain ere arrazoi dun. Felirengatik!

*(Emakume 1ek mukiak zurgatzen ditu, negar-zotinak ezkutatu nahian).*

**EMAKUME 2:** Zer dun?

*(Isilunea)*

**EMAKUME 2:** Zer pasatzen zain?

*(Emakume 1i pittin bat kostatzen zaio bere onera etortzea. Inguruari ere begiratzen dio, beste lankideek edo —edozein momentutan ager daitezkeenak— entzun eta ikus ez dezaten).*

**EMAKUME 1:** Orain arte ez dinat esan, baina... haserretu egin gintunan.  
(*Isilunea*)

**EMAKUME 1:** Feli eta biok haserretu egin gintunan.

**EMAKUME 2:** Zergatik ez didan ezer esan?  
(*Isilunea*)

**EMAKUME 2:** Zer gertatu zen?

**EMAKUME 1:** Asper-asper eginda zegoela esan zidan, nazka-nazka eginda, nekatuta.

**EMAKUME 2:** Eta?

**EMAKUME 1:** Ni ere hala nengoela eta bazterrak ez nahasteko esan nionan. Gu bezalakoek ez dutela ez nekatzeko ez nazkatzeko eskubiderik, eta gutxiago aspertzeko baimenik.

**EMAKUME 2:** (*Barrez*) Hara! Atera huen hire jenio hori, inork non gordetzen dunan ez dakiena!

**EMAKUME 1:** Niri ez zidan ba grazia handirik egiten!

**EMAKUME 2:** Barkatu. Eta?

**EMAKUME 1:** Lanean jarraitu geninan.

**EMAKUME 2:** Eta?

**EMAKUME 1:** Eta listo.

**EMAKUME 2:** Eta horregatik martirizatzen haiz?

**EMAKUME 1:** Ederra hago hi inor kontsolatzeko!

**EMAKUME 2:** Lasai hadi, Mertxe, hik ez dun-eta ezeren errurik. Felik hartutako erabakia berea baino ez dun. Ez haiz haren ekintzen erantzule.

**EMAKUME 1:** Amorru handiz begiratu zidan, Anamari.

**EMAKUME 2:** Feli ezagutzen huen, Mertxe. Haizeak segituan eramaten zitinan haren haserre eta purrustadak.

**EMAKUME 1:** Hala pentsatu nahi dinat. Baina ez zionat sekula neure buruari barkatuko, nik esandakoengatik dena pikutara bidalita egin badu egin duena.

(*Besarkatu egiten dira eta Mertxe urrumatzen du Anamarik*).

**EMAKUME 2:** Lasaiago al hago?

**EMAKUME 1:** Bai, baina...

**EMAKUME 2:** Bainik ez, Mertxe.

**EMAKUME 1:** Baina ezin dinat burutik kendu.

(*Besarkada etenaz*).

**EMAKUME 2:** Ahaztu Mertxe. Gainera egindakoa egina zagon, Felirenak ez din erremediorik. Erabaki bat hartu eta aurrera eraman zinan, kito!

**EMAKUME 1:** Eta guk ere egingo bagenu?

**EMAKUME 2:** Biok batera?

**EMAKUME 1:** Ez ninduken beste era batera egitera ausartuko.

**EMAKUME 2:** (*Barrez*) Pena bakarra izango ninake, nagusiaren aurpegia ezin ikustea.

**EMAKUME 1:** (*Barrez bera ere*) Gajoa, a ze pena!

**EMAKUME 2:** (*Nagusiaren plantak eginez*) Mertxek eta Anamarik zer egin dutela? Jainko potoloa, noraino iritsi litekeen jendearen buru falta! Haiek Feli hori baino bizkorragoak zirela uste nuen. Argi dago, giza kondizioa misterio handia da.

**EMAKUME 1:** (*Fartsarekin jarraituz*) Bai, don Klemente, nork daki burutik zer pasatu zaien bi gajo horiei. Familiari halako karga uztea ere...

**EMAKUME 2:** (*Don Klemente nagusiaren ahotsarekin*) Ez da ez burutik behera behar bezala janzten diren pertsonen jokaera.

**EMAKUME 1:** Jesus, Maria eta Jose! Hamaika ikusteko jaiok gara, don Klemente!

**EMAKUME 2:** (*Bere ahotsa berreskuratuz*) Bai, oilaloken korua entzuten ari naun.

**EMAKUME 1:** Eta Abelino eta Koxme zer!

**EMAKUME 2:** Ahaztuta nizkinan.

**EMAKUME 1:** Ahaztuta? Felik ez zinan inoren kargarik, baina guk...

**EMAKUME 2:** Mandoak al gara?

**EMAKUME 1:** Guk ezin dinagu Felik bezala egin, pentsatzea ere!

**EMAKUME 2:** Amestea librea dun.

**EMAKUME 1:** Baita norbere burua engainatzea ere.

**EMAKUME 1:** Barkatu.

**EMAKUME 2:** Ez zagon zer barkatua. Beti bezala, arrazoi dun orain ere.

**EMAKUME 1:** Arrazoa paparrean ipini dudan domina moduan ikusten badun, ez haiz zintzo jokatzeko ari.

**EMAKUME 2:** Hala pentsatzen dudala uste badun, gauzak segituan kitatuko dizkinagu.

**EMAKUME 1:** Ez, mesedez, ez dinat Felirekin gertatutakoa errepikatzerik nahi.

**EMAKUME 2:** Hori ez dun gertatuko, eta badakin.

**EMAKUME 1:** Barka nazan.

**EMAKUME 2:** Hik gauza bera egin eta barkatzen banaun.

**EMAKUME 1:** Badakin, inoiz eskatu zionat. Duela urte batzuetatik hona gero eta maizago, gainera. Emazkidazu urte batzuk lasai bizitzeko, bakar batzuk, neure kaxa jarduteko. Urte batzuk baino ez, sano, aje eta min

handirik gabe, neure burua zaintzeko adina osasunez urratzeko. Hori baino ez zionat eskatzen.

**EMAKUME 2:** Mertxe.

**EMAKUME 1:** Ez dun asko eskatzea, ezta? Ez ote dugu gehiago merezi! (*Isiltasuna*)

**EMAKUME 1:** Lehen galdetu dun; ba, ez ezan dudarik egin. Mandoak gaitun, bai. Begi-albokorik behar ez duten mandoak, gainera. Otzan eta prestu, azenario gutxi eta makilakada franko jasotako mandoak. Dagoeneko kexatzen ez direnak...

**EMAKUME 2:** Nola, ordea? Arrantzika ala irrintzaka?

**EMAKUME 1:** Ez dinat hire umore hori ulertzen.

**EMAKUME 2:** Serio jarri haiz, Mertxe. Zer dun?

**EMAKUME 1:** Badakin zer egiten duten elefantearekin? Jaio eta berehala kate motzean lotu. Bera hain handia eta, ohituraren ohituraz, lotuta dagoela eta ezin mugitu litekeela sinetsita. Eta, akaso, katea ez zagon inora lotua, edota preso duen harria edo zer nahi dela ere txikitu ahal izango luke, baina nonbaitera —al daki nora?— lotua dagoela uste din elefanteak eta hor jarraituko din, lanaren lanaz hustu eta lehertu arte.

**EMAKUME 2:** Serio jarri ez ezik, beldurtzen ere ari naun. Non irakurtzen ditun gauza horiek? Orain elefanteak al gara?

**EMAKUME 1:** Oxala!

**EMAKUME 2:** Ba, jai zeukanagu orain ere. Ze, hik ba al dakin nola egiten duten elefanteek? Orro? Marru?

**EMAKUME 1:** (*Alegerago*) Hirekin, barre-zantzoi!

**EMAKUME 2:** Ez den gutxi, hik ere barre egiten badun!

**EMAKUME 1:** Hi zoriontsua al haiz?

**EMAKUME 2:** Ni? Zer dakit! Beste asko baino hobeto nagon. Hi ez?

**EMAKUME 1:** Badakin, besteen egoerek ez dinate asko balio norberaren kontsolamendurako.

**EMAKUME 2:** Eta nor da zoriontsua? Baten bat ezagutzen al dun?

**EMAKUME 1:** Feli akaso?

**EMAKUME 2:** Akaso, hori ezin dinagu jakin.

**EMAKUME 1:** Inbidia zionat; libre dun bera orain.

**EMAKUME 2:** Libre bai, baina librea den koldarra.

**EMAKUME 1:** Ez, ez dun koldarkeria berak egin duena, ez. Txorakeria galanta dun lehen esandakoa. Nahiago ninake berak egindakoa egiteko adina ausardia bilduko banu.

**EMAKUME 2:** Hi ez haiz Feliren hain ezberdina.

**EMAKUME 1:** Hori uste al dun?

**EMAKUME 2:** Bai, Mertxe.

**EMAKUME 1:** Hori Feliren eta hire ondoan pasatako denboragatik izango dun, ez ezan batere dudarik egin, Anamari.

**EMAKUME 1:** Hutsik sentitzen naun, mamirik gabeko ogi arolaren gisakoa.

**EMAKUME 2:** Hutsik akaso, baina ez hutsaren hurrengo, ez ahaztu. Bolada txarren bat izango dun.

**EMAKUME 1:** Bolada? Luze jotzen ari dun ba, bizialdi oso bat.

**EMAKUME 2:** Ez hago gustura tokatu zainan bizitzarekin?

**EMAKUME 1:** Nola egongo naun ba gustura! Tokatu? Horixe dun, nik ez dinat loteria hau jokatzeari hautatu.

*(Isiltasuna)*

**EMAKUME 1:** Esan dinat zer den gau eta egun goiko horri eskatzen diodana?

**EMAKUME 2:** Huskeria bat, bai. Egon hadi horretan, lehenago hi eramango hau eta, lehertuta.

**EMAKUME 1:** Lanak pertsona duintzen zuela esan zigutenan.

**EMAKUME 2:** Eta hik sinetsi!

**EMAKUME 1:** Emazte zintzo eta otzan izateko estu hezi gintiztenan, arauak errespetatzen erakutsi eta behartu.

**EMAKUME 2:** Alaba, emazte, ama eta errain izateko, neska. Euskal matriarkatua esaten zioten, izorrai!

**EMAKUME 1:** Galtzaile ateratzen gaitun beti.

**EMAKUME 2:** *(Abestuz)* Zirt-zart gogoz egin zan par  
Pardel-ezkontza baino  
hobe den neskazahar

**EMAKUME 1:** Bai, horixe kantatzen zinan Felik. Baina ez zekinat, neskazaharrek gurasoak ere bazauzkaten, eta anaiak eta deskuidatzen bahaiz serorak ere baditun.

**EMAKUME 2:** Haiak ere neskameak ditun, orduan.

**EMAKUME 1:** Hortzak aspaldi berdindutakoak, baina neskameak azken batean.

**EMAKUME 2:** Horixe dun, Mertxe, gure patua.

**EMAKUME 1:** Patu horri lepoa moztuko nioken gustura.

**EMAKUME 2:** *(Barrez)* Patu horren lepoa sugandilen buztanaren gisan hazten dun. Badakin esaera: lehengo lepotik burua.

**EMAKUME 1:** Ez naun atzo goizekoa, Anamari.

**EMAKUME 2:** Zer aldatu da azken egun hauetan?

**EMAKUME 1:** Felirenak hunkitu nain.

**EMAKUME 2:** Hori bakarrik?

**EMAKUME 1:** Egun, hilabete eta urte asko ditun. Herrestan beti. Minari mina lotzen. Nekatuta nagon.

*(Isiltasuna)*

**EMAKUME 1:** Kosta ahala kosta atera nahi dinat hemendik. Besteri emana bizi naun. Haiei emana beti. Behingoagatik komeni zaidana erabakiko dinat!

**EMAKUME 2:** *(Lantegiko atsoen planta eta ahotsa ipiniaz, espantuka eta aitaren eginez)* Don Klemente, zer egingo du orain familiak? Senar gaixoa, eta semea. Eskerrak gure Jainko Jaunak gurasoak bere ondora aspaldian eraman zituela, bestela... a ze lotsa! *(Don Klementeren ahotsa ipiniaz)* Ez da ez burutik behera behar bezala janzten den pertsonaren jokaera, ez. Burutik kendu ezinik nabil bi gizaseme horien desgrazia!

**EMAKUME 1:** Utikan jendearen marmarrak eta jendea bera!

**EMAKUME 2:** Eta Koxme eta semea?

**EMAKUME 1:** Horiek? Bi horiek ditun okerrenak. Konponduta nagon horien esperoan egon behar badut. Inoren pentsura beti, eta orain nire pentsura bizi ditun. Semeak zainduko nauela uste al dun? Jai dinat harekin.

**EMAKUME 2:** *(Ironiaz)* Mandotik zaldira egin dinagu, hobera, gu baldin bagara pentsua partitzen dutenak!

**EMAKUME 1:** Ez ahaztu azpiak ere guk ateratzen ditugula. Morroia, beti morroi!

**EMAKUME 2:** Kalekumea hintzela uste ninan?

**EMAKUME 1:** Kaleko baserri-kumea, eta belar motzean hazia gainera!

**EMAKUME 2:** Bizitakoa bizita, merezitako ordaina jasoko ez duena.

**EMAKUME 1:** Gu zainduko gaituenik ez dun jaio. Hobe buruan sartzen bazaigu.

**EMAKUME 2:** Eta egingo bagenu?

**EMAKUME 1:** Bakea.

**EMAKUME 2:** Gero ezin izango dinagu atzera egin.

**EMAKUME 1:** Gaitz erdi.

**EMAKUME 2:** Ez din bueltarik izango. Ez dun damutzeko aukerarik izango.

**EMAKUME 1:** Bake santua.

**EMAKUME 2:** Biak batera?

**EMAKUME 1:** Idiak bezala.

**EMAKUME 2:** Patari kontuetan adituak gaitun.

**EMAKUME 1:** Uztarri berari lotuta denbora asko zaramanagu, kopetakorik gabe gainera.

**EMAKUME 2:** Iritsi dun lokarriak hausteko garaia. Gure grinei lotzeko eta besteen nahiekin eteteko unea.

**EMAKUME 1:** Akuilua baino ez geninan falta.

**EMAKUME 2:** Feli.

**EMAKUME 1:** Hagoen tokian hagoela, bejondeinala, Feli!

**EMAKUME 2:** Hori dun. Hire atzetik goazan, Feli.

**EMAKUME 1:** Oharra utzi zezakenagu, abisuren bat.

**EMAKUME 2:** Ezta hurrik eman ere!

**EMAKUME 1:** Goazeman!

**EMAKUME 2:** Aio.

*(Buzoa, kaskoa... edo zernahi daramatena erantzi eta eskenatokitik alde egiten dute)*